

© Hitzontzi ©

XXI. mendeko euskal haur eta gazte poesia bilduma

Hitzontzi honetan Manu Lopez eta Xabier Etxanizek egindako artikuluaeren haritik, XXI. mendean argira ateratako zenbait poesia liburuen perlatxo batzuk ekarri ditugu. Egileak honako hauek dira: Pello Añorga, Juan Kruz Igerabide, Antton Kazabon, Xabier Olaso, Joxan Ormazabal, Ruben Ruiz, Jabi Santa Cruz, Jon Suarez, Ana Urkiza, VV.AA. Aizkorri (Miren Agur Meabe, Patxi Zubizarreta, Karlos Santisteban, Bernardo Atxaga).



AÑORGA, PELLO

Zuni. Bilbo, 2006, Aizkorri.

PRINTZAK

Zuhaitzaren adarretan
printzak
ekiaren
mintzak

UNIBERTSOA

Unibertsoan dago lurra
eta lurrean itsasoa
eta itsasoa ni
eta zu
eta bertsoa
gure unibertsoa

BAT

Gu gara
bat

eta bi
eta hiru
eta lau
eta bost

gure eskuko hatzak diren bezala
bat

eta bi
eta hiru
eta lau
eta bost

EKIA

Eki
eki
eki
eki
eta eki
bihotzaren lorea
eskuan ireki

IGERABIDE, JUAN KRUZ

Munduko ibaien poemak. Donostia, 2004, Elkar.

Mackenzie

Izozkiari
goxo-goxo miazka
ari da ibaia.

IGERABIDE, JUAN KRUZ

Gorputz osorako poemak. Bilbo, 2005, Aizkorri.

Hankak

Hanka azpian ilargia:
gorantz egiten du argia
eta hegaldi larria
nire zapatiletan gora
korapiloetan zora-zora
zeru goiaren altzora.

IGERABIDE, JUAN KRUZ

Mintzo naiz isilik. Donostia, 2001, Elkar.

Amaorde zurezko,
amatxo nekatzean
haurrari eusteko.

IGERABIDE, JUAN KRUZ

Ilargia ezpainetan. Donostia, 2006, Erein.

Nire bizitza katilu esnetan,
koilaratxo jira-biraka.

Zoriontasun ikusezinaren azukrea
nahasten da oroitzapen zurian.

Amaren aurpegia agertu ez agertu;
azpian, aitaren bekokia:
eta zurrunbiloan, anai-arrebak...

Eta nik, dena edan behar
eta mingainaz garbitu ezpainak.

KAZABON, ANTTON

Emozioen kuliska. Donostia, 2002, Elkar.

Ilunabarrak

Ilunabarrak
gorritzen ditu zeruak
leuntzen zimurrak
lautzen ditu maldak
goxatzen zauriak
beratzen ditu gogorrek
makurtzen harroak
lasaitzen iskanbilak
sendatzen minak

Zatoz egunero
ilunabar

Zure zapi gorrian
egin nahi dut negar.

KAZABON, ANTTON

Armiarma zuhaitzean. Bilbo, 2004, Aizkorri.

Ilargia

Bart arratsean leihotik
sartu zait ilargia
eta bertatik bertara
ikusi diot aurpegia

Alde bat iluna
bestea argia
eta begirada
gardena eta argia

Orain gauero igo nahi dut ilargira
handik jartzeko lurrari begira
lurrera handik handik lurrera
egunsentiko eguzki irriparekin batera

Ilargitik zintzilik zarramiloan
zirrin-zarran zirrin-zarran
nahi dut ibili
zahartzaroari begiratu
eta haurtzaroa ikusi

Ilargian zankoloka
nahi dut mundua zeharkatu

Ametsetan ari naizela
amestu.

KAZABON, ANTTON

Anpolai gorriak. Zaragoza, 2005, Ibaizabal.

Erreka

Udazkenero eramaten ditu
errekak
pago biluztuaren orbel gorriak

Baina udaberriak
berriz jantziko du pagoa
hosto berriz
berriz
udazkenak

errekara isuri ditzan
eta errekak eraman

Ni ere
gauero jantzen nau amak
muxuz

Gauak biluztu ez nazan
eta errekak ametsak eraman.

KAZABON, ANTTON

Irrikaren distira. Iruñea, 2006, Pamiela.

Mundua pasatzeko

Euria eta haizea
jantzi nituen mundua pasatzeko

Baina ez zen aski

Euriak indarrak urtzen dizkit
eta haizeak nora ezean narama

Errekan gora egingo dut
sasiak oinpean
orbelak ostikoz
putzuloak salto
ezpondak saihets
zuhaitzak babes

Errekan gora
zuhaitzak babes
eguzkia amets

Eguzkia
jantzi nahi dut
mundua pasatzeko
gauetz ilargira heltzeko.

LINAZASORO, KARLOS

Zein beste mundukoa. Donostia, 2008, Elkar.

KAIOLARI
hegoak moztu dizkiot.
Orain neurea da,
ez du alde egingo.

Zabal ditu burdinak, ahuspez betiko.
Txoriak behar ditu bizitzeko,
kantua behar hegaldatzeko.
Baina kaiola hutsik da,
inoiz baino ederrago.
Horretarako egin baitziren burdinak:
kanpotik begiratuak izateko.

MAITE zaitudan laurdena
asko da.
Maite zaitudan herena
aski da.
Maite zaitudan erdia
gehitxo da.
Maite zaitudan osotasuna
oro da.
Eta hala ere eskas.
Gehiago merezi duzu,
oro baino gehiago dena,
eta nik ez dakit oro baino gehiago ematen,
ez dakit ematen dena.
Ni osoa, maite, luze-laburrean,
ez baita zure laurdena.

Oi lur,
oi lur,
dena behar dut
maite;
baita
maite ez dudana ere.

ZER den, maite,
bizia?
Eman dugun
oroz
jasoko dugun
guztia.

OLASO, XABIER

Pupuan trapua. Iruñea, 2004, Pamiela.

BI KIKA

Burukoaren pean
hautxoaren bi kika,
Maritxu Teilatuko badator korrika.

Korri-korrika,
kika bat,
bi kika,
kika biak harturik
laga ditu bi koko.

Bi koko laga,
bi kika eroan,
kikarik ez badauka,
ezin kokorik jan.

UDAZKENA GALTZETAN

Udazken lerden:
hiru tanta garden,
bi hodeian behera datoz,
galdezka,
bestea non ote den.

Udazken xaramela:
teilatuak mela-mela,
argilunetan jostetan
argia eta kandela.

Udazkena galtzetan:
ikastolan orbelak,
biluzik,
laztan isiletan.

OPARIAK ELKARRI

Matxinsaltoak eta pinpilinpauxak
mendian ezagutu zuten elkar,
matxinsaltoak pinpilinpauxari

zerbait eman nahi zion opari;
zer emango eta zer emango
bere izenaren erdia,
geroztik pinpilinpauxa
deitzen da pinpilinsalto.

Txantxangorriak eta gardantxiloak
zuhaitzean ezagutu zuten elkar,
gardantxiloak txantxangorriari
zerbait eman nahi zion opari;
zer emango eta zer emango
bere izenaren erdia,
geroztik txantxangorria
deitzen da txantxantxiloa.

Txilinloreak eta jazminak
lorategian ezagutu zuten elkar;
jazminak txilinloreari
zerbait eman nahi zion opari;
zer emango eta zer emango
bere izenaren erdia,
geroztik txilinlorea
deitzen da txilinmina.

UME EZPATARIA

Umea, ezpata harturik,
haizearen kontra hasi da:

di-da,
di-da...

Bufadaka erantzun dio haizeak.

Umea, ezpata harturik,
hodeien kontra hasi da:

di-da,
di-da...

Euri-jasan blaitu da.

ORMAZABAL, JOXANTONIO

Bihotza zubi. Donostia, 2001, Elkar.

EZ GARA BI

Amets berak lotzen gaitu biok
baina ez gara bat
ez gara bi
ostadarra dugu zubi,
bai eta ez
ez eta bai
erdian ibai.

HERIOTZA

Bizitzaren ilunabarrean
begiak itxiko ditut
eta isil-isilik
hegan joango naiz
argiaren bila,
bidean hilko naiz
poliki-poliki
ilun-ilun
nire bizitzaren gau isilean
gau bakarrean.
Luzea izango da
heriotza-bidaia
baina alaia
lasaia...

ORMAZABAL, JOXANTONIO

Ilunorduak eta argilaurdenak. Donostia, 2007, Elkar.

Everest, Everest
handinahiaren amets, amets.
Gailurra tronu
ospea sari
errege batentzat
zenbait giza zamari!
Erreginentzat orobat
asko, ugari!

Gure mendi berde xumeetan
Everesteko eguzki bera dakust
goiz oskarbietan
ilargi bera gau izartsuetan.
Eta nik ez dut sinesten erregeetan
ezta ere erreginetan.
Everest ez zait kabitzen
neure ametsetan

ORMAZABAL, JOXANTONIO

Ilunorduak eta argilaurdenak. Donostia, 2007, Elkar.

Parkeko aulki gorrian
txori batek
kantatu du
eguerdian
bikote batek
elkar maitatu
ilunabarrean
eta eskale batek lo
gau bakartian.

RUIZ, RUBEN

Sekretuak belarrira. Bilbo, 2007, Aizkorri.

ARDIA
Mendi magalean
elur maluta:
bertan ardia galduta.

EKLIPSEA
Eguzkia bira eta bira,
ilargia jira eta jira,
kolpean elkartu dira
sekretuak belarrira.

BALEA
Hil da,
hil da azken alea,
hil da tiroz balea.

NEKOSTA

Asierrek laguna du nekosta,
agur esan nion ozta-ozta,
nonbait elkartuko gara
kosta ahala kosta.

SANTA CRUZ, JABI

Hiriko baratzean. Iruñea, 2008, Pamiela.

AITARI

Aitzur ugertuaren kirtenak
oraindik gordetzen du
zure esku latzen berotasuna.

GLAZIARREAN

Glaziarrean
izotzak mimatzen zaitu
bular beteak eskainiz
zure bakeari.

BAKEA

Hitz bat oparitu zenidan:
bakea.

Etsita nengoen, haserre,
hitz bakarraren premian bertsoari
amaiera duina emateko.

Zientoka hitzekin saiatu nintzen...
hiztegi erdia irauli
bertsoaren gainean.

Hitz bakoitzak eta guztiek
irrist egiten zuten,
barregarri uzten ninduten.

Nire kezka aitortu nizun,
ezinegonaren zergatia,
ariketaren ezina.

Puzlea osatzeko falta zen pieza
golkoan ezkutaturik zeneukan,
almizklean bilduta.

Bakea,
esan zenidan.
Bakea dator egoki.

Arnasa hartu nuen
Sosegua bilduta aspaldiko partez.
Zure hitzen esklabo bizi naiz.
Zuk daukazu nire bakearen giltzarria.

ADABAKIA

Sumendiaren eztanda entzun genuen.
Igandea zen.
Akaziak loratzen diren garaian erleak
erlauntzaren babesa uzten dutela
ikusten ari nintzen telebistan.
Bat-batean lurra
ikararen ikaraz
dardaraka hasi zen
nire oinpean.
Zure bila atera nintzen hirian barrena.
Zapatarik gabe, gona urratuta,
belaunak odoletan,
–urmaelea islatzen zen suzko zeruari begira–
parkean aurkitu zintudan.
Ez nizun galderarik egin.
Gozo eta samur
altzoan hartu zintudan.
Goazen etxera
erregutu zenidan.

Azken aldiz,
ipuin bat asmatu nuen zuretzat.
Oraindik ez dut erabaki ipuinaren amaiera.
Sumendiaren eztanda entzun genuen.
Igandea zen.

SUAREZ, JON

Ilbetea dilindan. Iruñea, 2002, Pamiela.

MAGALEAN

Zure musua, pa,
nire masailean,
zure musua, muin,
nire barrenean,
zure musua, pot,
daukat bihotzean.
Masailean
barrenean
bihotzean
zure musua igerian.

IPUIN bat kontatuko dizut
zatika-zatika olatuek ekarri didaten
ipuina, pirataren ipuina
altxor bila itsasoratu zen pirataren ipuina
ekaitzak irentsi zuen pirataren ipuina
itolarran marrazoekin borrokatu
zen pirataren ipuina
erasotzaileak garaitu zituen pirataren ipuina
igerian musker-uhartera iritsi
zen pirataren ipuina
uharteko zaldunek harrapatu
zuten pirataren ipuina
ziegan preso sartu zuten pirataren ipuina
leotzeko leihotik printzea maitemindu
zuen pirataren ipuina
printzearen laguntzaz gatzelutik ihes
egin zuen pirataren ipuina
portuan ontzia lapurtu zuen pirataren ipuina

berriz ere itsasoratu zen pirataren ipuina
kaian printzea negarrez utzi
zuen pirataren ipuina
ontzian printzearen malko kristalduak
zerratzen pirataren ipuina
pirata partxedun ausart tristearen ipuina
malko perlak aski ez eta...
berrero altxor bila itsasoratu
zen pirataren ipuina
ipuina bat kontatuko dizut, bai, pirataren ipuina
baina hurrengo batean izan beharko du
orain lo egiteko ordua duzu-
eta, piratatxo laztana.

MUSUETAN MUSU

Amatxoren karmina gustatzen zait
aitaxoren masailean marrazten.
Aitaxoren egunbeteko
bizarra gustatzen zait
amatxoren musua mokokatzen.
Oso ditut maite
karmina eta bizarra
bizarra eta karmina
matela banatan pausatzen
zaizkidanean
matrailatxook gorrimitzen
dizkidatenean.

AUKERAN
nahiago intxaur-oskol erdia
arrautza-oskol erdia baino.
Estalpe izango badut,
epelago,
uzkurtuago,
neureago
bilduko bainau.
Intxaurrago
neure sekretutxoak.

URKIZA, ANA

Nire hiriko poemak. Iruñea, 2006, Pamiela.

Taberna

Kea sartu da tabernan
baso erdi ur edatera:
musikaz jabetu da
jendearen elkarrizketez
bihotzeko kontuez...
Jada, tabernatik kea inork ezin atera.

Mapa

Nire hiria mundu osoa da
zerura begira.
Nire hiria hondar aletxoa da
zerutik begira.

Termometroa

Termometroak koloreak ateratzen daki:
zein den musu-gorri
nor mutur-berde
nola datorren kopetilun
hala bizargorri.
Bihotzaren hotz-beroa asmatzen ere, badaki.

Izarbatua

Gaur festa da:
gauak belarritakoak jantzi ditu.

VV.AA.

Zaldiko-maldikoan. Bilbo, 2003, Aizkorri.

MEABE, MIREN AGUR

KALATXORIAK
Kalatxoriak begira-begira neuzkan
zure marrazkia hondartzan egin nuenean.
Olatua etorri eta joan.
Kalatxoriak musuzapi zuriak harkaitzetan.

SANTISTEBAN, KARLOS

AMETS-SALTZAILEA

Entzun! Begiradak saltzen ditut:
belatzarenak, zorrotz eta goikoak;
hontzarenak, biribil eta gauekoak!

Entzun! Musuak saltzen ditut:
masailak gorritzen dituzten oskarbi gorenak,
eta baita ere arrosak, bihotzarenak.

Entzun! Besarkadak saltzen ditut:
elurra, izotza, ezezagunaren hotza;
udako eguzki izpiak, maitasunaren jaiotza.

Entzun! Sentipenak saltzen ditut:
alaitasuna, magarik gabe luze,
horizontean begia:
irria, ortzirantz jalkia, dirudiela lilia.

Entzun! Ametsak saltzen ditut:
Zoriontasunezko zubiak eta
bakezko akueduktuak;
karameluzko urlasterrak, itxaropen emaritsuak.

Ametsak saltzen ditut!

ZUBIZARRETA, PATXI

Besteen begien beldur
ni ez naizen hori
ikus ez dezaten
itsusi, kaskopelatu, deseroso
ikus ez nazaten.

Eta amak beti esan dit
horrela bi, ile motz-motzarekin
nagoela ni ongi.
Baina niri ez zait gustatzen
eta etxeko ispiluen beldur izaten naiz.

ATXAGA, BERNARDO

TXAKUR TTIKIAK DIO

Txakur ttikiak dio
lorategian:
lau haize dabilta
nire bihotzean.
Zer hozka gogoa
nahasten direnean!

Hor dator tximeleta,
zer zintzoa, zer polita!
kolorea du horizta,
izena seguru Evita.

Barkatu Evita,
baina zaka! kosk! kaska!
lau haize dabilta
nire bihotzean.
Zer gaiztoa naizen
nahasten direnean!